

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **89/2021 Mozioa, azaroaren 18koa, abeltzainen jarduerak tokiko elikagaiak hornitzeko, enplegua sortzeko eta Arabako eskualdeetan landa-garapena sustatzeko duen garrantzia aitortzeko**

Arabako Batzar Nagusi hauetako Nekazaritza VIII. Batzordeak, 2021eko azaroaren 18an egin-dako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

89/2021 Mozioa, azaroaren 18koa, abeltzainen jarduerak tokiko elikagaiak hornitzeko, enplegua sortzeko eta Arabako eskualdeetan landa-garapena sustatzeko duen garrantzia aitortzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek errekonozitu eta defendatzen dute abeltzainek egiten duten jarduerak kalitateko tokiko elikagaiak hornitu, enplegua sortu eta Arabako eskualdeetan landa-garapena sustatzen duela.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala lurraldeko tradiziozko abeltzaintza estentsiboaren eredu babesten, eredu hori baita natura-baliabideen aprobetxamendu orekatua bermatzen duena eta ezinbesteko lanabesa delako klima-aldaketaren ondorioak arintzeko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako gizarteari helarazten diote beharrezkoa dela bizitza-ohitura osasungarriak sustatzea, elikadura orekatu eta askotariko baten bidez, eta horrekin batera jarduera fisiko ohikoa eginez.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 18a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**